

Elkartasunarekin konprometitua**EROSKI BATU DA AURTEN ERE FAMILIA ZAURGARRIENEI
LAGUNTZEKO ELIKAGAIEN BANKUEN BILKETA HANDIRA**

- FESBAlek eta haren kide diren 54 bankuek bultzatzen dute ekimen hori, eta azaroaren 7tik 9ra egingo dute EROSKI Taldearen hipermerkatuetan, supermerkatuetan eta frankizietan.
- Bezeroek iruditzen zaien kopurua eman ahalko dute dohaintzan ordainlekuetan, edo fisikoki hartzen dituzten zentroetara eramanez ahalko dituzte elikagaiak.
- Kooperatibak berretsi egin du elkartasunarekin eta iraunkortasunarekin duen konpromisoa, 10.750 tona elikagai hondatzea eragotzi baitu 2025eko lehen sei hilabetera.

Elorrio, 2025eko azaroaren 6a. - [EROSKI](#)k aurtengo ere lagunduko du Bilketa Handian, [FESBAL Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak](#) eta haren kide diren 54 bankuek bultzaturiko elkartasun ekimenean. Azaroaren 7tik 9ra egingo dute, EROSKI Taldearen sare komertzialeko hipermerkatuetan, supermerkatuetan eta frankizietan. Dohaintza ekonomikoak eta produktuen bilketa fisikoak egiten dira kanpaina horretan, eta helburua izaten da premiazko elikagaiak biltzea familia zaurgarrien mesedetan.

Kanpaina egunetan, bezeroek nahi duten kopurua eman dezakete dohaintzan ordainlekuetatik pasatzean. Dohaintza hori erosketa tiketearekin islatuta geldituko da, eta errenta aitortzea egitean zergak arintzeko balioko du.

Ordainlekuetan egiten diren dohaintzak saldo zuzen bihurtzen dira Elikagaien Bankuentzat, eta horiek osorik trukatu ahal dira oinarritzko elikagaiekin, urte osoan haiengana jotzen duen familien beharren arabera.

Horretaz gainera, zentro jakinetan elikagaiak fisikoki bilduko dira azaroaren 7an eta 8an, Elikagaien Bankuekin aritzen diren boluntarioen eta EROSKIko dendetako langileen laguntzarekin. Kanpaina amaitzean, kooperatiba arduratuko da dohaintzak zentroetan bildu, sailkatu eta kuantifikatzeaz. Ondoren, FESBAlek oinarritzko elikagaiekin eraldatuko ditu, eta premia handiena duten familiei banatuko die.

"Aurtengo ere, gure bezeroei dei egiten diegu elkartasuna erakustera kolektibo zaurgarrienei laguntzeko. EROSKI lagundu nahi dio Elikagaien Bankuari, berak egiten duen lan ezin baliotsuagoan, nola eta, egindako dohaintzen guztizkoaren gainean, ekarpen gehigarri bat eginda. Bilketa Handiarekin, agerian jartzen da nolako indarra duten kooperazioak eta

*konpromiso partekatuak gizarte bidezko eta solidarioago bat eraikitzeko", azaldu du **Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKIko Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.***

Pedro Llorca FESBAleko presidenteak, berriz, honela esan du: *"Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak eta kide diren 54 bankuek esker onak eman nahi dizkiegu EROSKIri eta haren bezeroei, hain beharrezkoa izaten dugun Bilketa Handi honetan inplikatzegatik. Gure helburua da une jakinean premia handieneko elikagaiak eskaintzen jarraitzea gehien behar duten familiei. Aliantza mota hori ezinbestekoa izaten da gure zereginari eusteko eta gizarte osoa batzen duen elkartasun kateari bizirik eusteko".*

Elikagaien Bankuei egiten zaizkien dohaintzez gain, EROSKI bestekim batzuk gauzatzen ditu elkartasunarekin eta iraunkortasunarekin duen konpromisoaren ildoan; horien artean, azpimarratzekoak dira: Zero Zabor eta Elkartasun Zentimoak programak, une jakinetan egiten diren nazioarteko kooperazioak eta beste ekimen batzuk, hala nola *Too Good To Go*, fruta itsusien kanpainak eta azpiproduktu organikoen balorizazioa. 2025eko lehen sei hilabetean, ekintza horiei esker, eragotzi da 10.750 tona elikagai alferrik galtzea.

Joan deneko 29 urtean Elikagaien Bankuekin elkarlanean

EROSKI 1996an hasi zen Elikagaien Bankuekin lankidetzan, Bizkaiko Elikagaien Bankuak eta kontsumitzaileek proposatuta: kooperatibari eskatzen zioten elkartasunezko egitasmoak abiatzeko behartsuen eta bazterkeria soziala jasateko arriskuan direnen alde. Hala, urte horretan bertan sortu ziren elikagaiak biltzeko kanpainak kooperatibaren dendetan.

Gero, EROSKI martxan jarri zuen elikagai ontziratutako emateko programa; kontsumitze-data gomendatua hurbil zeukaten produktuak ziren, baina ziurtasun osoz jateko modukoak, eta horren bidez, urtean 5.000 tona elikagai baino gehiago ematen ditu.

Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak EROSKIren lana aitortu izan du, eta Urrezko Galburuaren saria eman izan dio; hori da Federazioaren saririk handiena, eta sobran geratu diren jakiak elkartasunez banatzen dituzten elkartei ematen die.

EROSKIri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 27.600 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 9.000, berriz, bazkide eta jabe dira.